

ETXE EKOLOGIKOAK

Gaur egun ingurumenaren eta kutsaduraren gaiak edonon aurkitu ditzakegu: telebistan, irratian, aldizkarian... Mundu guztia kezkatuta dago munduaren etorkizunarekin, eta geroz eta oikoagoak dira ingurumenari laguntzeko egiten diren ekintzak ikustea. Gure taldearen lehenengo kezka ingurumenari laguntzeko produktu bat sortzea zen. Gure proiektuarik, pertsona gehienak kontzientziatzea eta ingurumenari modu sinple eta efiziente batean laguntzea ahalbidetu nahi genuen. Horretarako, ikerketa bat egin genuen, eta gure egitasmo nagusia zein den ulertu genuen: etxe ekologikoak egitea.

Gure taldeak proposatu duen ideia etxe ekologiko eta autosufizienteak egitean datza. Etxe ekologiko hauek material birziklatuekin eginda daude. Material hauek



birziklatuta daudenez, oso merkea dira, eta gainera horiek lortzeko CO₂ eta kutsadura kantitate txikia sortzen da. Ez du elektrizitatea eta ura iturri orokorretik hartzen, naturatik baizik (euriko ura eta eguzki panelak erabiltzen ditu). Gure ideia krisiarentzako ere prestatuta dago: Lehen ezan dugun bezala, etxeak egiteko materialak oso merkeak dira eta etxeak oso prezio onean salduko ziren, merkatuko beste

edozein enprekin konpetitiboa izaten. Gainera etxe hau lekuz aldatu daiteke oso erraza delako mugitzea (kamioi batean sartu daiteke). Azkenean gure enpresarekin lortu nahi den helburu nagusia kutsadura murriztea eta bizitza ekologikoa sustartzean datza.

